XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5638

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 11koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2024. urterako tarifak onartzekoa.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2023ko abenduaren 11n egindako bileran, erabaki bat hartu zuen, eta, jende guztia jakinaren gainean egoteko, segidan transkribatzen da haren xedapenak.

ERABAKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek eskariak aurkeztu dituzte Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren 2024. urterako tarifak berrikusteko.

Auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren tarifek prezioak kontrolatzeko arautegia bete behar dute, «autonomia-erkidegoen eremuan baimendutako prezioak» modalitatean, hala ezarrita baitago Zerga-arloko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16.4 artikuluan (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeak du prezioak kontrolatzeko eskumena, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin bat etorriz (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta Baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduari jarraituz (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arauen helburua da nolabaiteko ekonomia-oreka bat lortzea, premiazkoa baita prezioak ezartzeko mekanismoak kontrolatzea, bizitzaren kostua aintzat hartuta.

2024. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedienteak aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta zerbitzua emateagatiko kostuen egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko honako udal hauek auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko aurkeztutako 2024. urterako tarifak onartzea, balio erantsiaren gaineko zerga barne dela:

1.– Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalak, Debagoiena eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2910	1,3442	25,6718	4,2910	2,1440	40,3558

(1) Aretxabaletan eta Eskoriatzan tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara..

* Bergaran tarifa hau lanegunetan ezarriko da 06:00etatik 22:00etara.

(2) Aretxabaletan eta Eskoriatzan tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

* Bergaran tarifa hau egunero gauez aplikatuko da; hau da, 22:00etatik 06:00etara bitartean, baita igandeetan eta araudi autonomikoak nahiz tokikoak onartutako jaiegunetan egun osoan zehar ere.

2.– Debako, Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko, Mutrikuko eta Soraluze-Placencia de las Armaseko udalak, Debabarrena eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,1298	1,5350	20,5166	6,6747	1,6988	21,5736

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

* Eibarren, gainera, 2. tarifa aplikatuko da ekainaren 24an (San Juan), irailaren 8an (Arrateko Ama) eta azaroaren 30ean (San Andres).

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du..

3.– Hondarribiako eta Irungo udalak, Bidasoa eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,2288	1,3110	25,2989	7,3272	2,0433	38,9195

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

* Hondarribian, gainera, 2 tarifa aplikatuko da irailaren 7tik irailaren 8ra bitarteko aldirako.

* Irunen, gainera, 2. tarifa aplikatuko da ekainaren 28ko 14:00etatik ekainaren 29ko 22:00etara.

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

4.– Beasaingo, Idiazabalgo, Segurako eta Zegamako udalak, Goierri eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2403	1,3275	25,3552	4,2403	2,1171	39,8501

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2 Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere..

5.– Legazpiko eta Zumarragako udalak, Urola Garaia eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,1178	1,2934	24,7066	4,1178	2,0629	38,8370

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

6.– Azkoitiako, Azpeitiako eta Beizamako udalak, Urola Erdia eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,2417	1,3384	25,5609	4,2725	2,1347	40,1793

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

7.– Villabonako eta Zizurkilgo udalak, Tolosaldea eskualdekoak:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Abiasaria	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,8998	1,2029	21,8107	5,5297	1,8298	32,1282

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere..

* Zizurkilen, 2. tarifa ez da aplikatuko abenduaren 24an eta 31n..

8.– Barakaldoko Udala:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,314	1,2133	23,44	7,004	1,3938	25,48

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

(3) Gutxieneko tarifak 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

9.– Bilboko Udala:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)			Tarifa 5 (3)		
Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
4,72	0,87	21,12	5,43	1,08	26,86	5,74	1,08	26,86

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau larunbatetan, igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan ezarritako jaiegunetan aplikatuko da. Era berean, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara ere aplikatuko da, baita Aste Nagusiko lanegunetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

(3) Tarifa hau ostiraletan, larunbatetan, jai bezperetan eta zaindariaren jaietan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara.

* Aste nagusiko lanegunen bezperan eta abenduaren 24ko eta 31ko bezperetan ez da 5. tarifa aplikatuko.

(4) Gutxieneko tarifak 1.550 metroko ibilbidea hartzen du.

10.– Donostiako Udala:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)			Tarifa 5 (3)		
Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,964693	0,837677	24,320055	6,91065	1,299642	32,426738	6,925205	1,345130	33,561597

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Larunbatetan, igandeetan eta araudi autonomikoan nahiz tokikoan zehaztutako jaiegunetan aplikatuko da, baita Donostiako Aste Nagusian, abuztuaren 12, 13, 14, eta 16an, eta abenduaren 24 eta 31n ere.

Era berean, lanegunetan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara, salbu eta, ostiraletan eta jai bezperetan, 22:00etatik dagokion larunbateko eta jaieguneko 07:00ak arte.

(3) Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan, 22:00etatik dagokion larunbateko, igandeko edo jaieguneko 07:00ak arte.

(4) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

Bigarrena.– Erabaki honek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 11.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JESÚS MARÍA GARCÍA DE COS.